

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 08:00 horas del día 28 de febrero de 2025, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres./Sras. Concejales/as D. José Irigaray Gil y D. Eder Martínez de Miguel, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia D^a. Andrea Juandeaburre Serna

1.- APROBACION PROCEDIMIENTO ADJUDICACION Y PLIEGO CONDICIONES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS PARA LA REDACCIÓN Y DIRECCIÓN DE OBRA DEL PROYECTO DE RECUPERACIÓN DEL LEGADO HISTÓRICO DEL RECINTO AMURALLADO DE AURITZ/BURGUETE A TRAVÉS DE LA CONSOLIDACIÓN DE PARTE DE SU PERÍMETRO

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Osés que expone que tras la comunicación verbal del Ministerio de Turismo e Industria de la aprobación de un Real Decreto para la concesión de ayudas para el proyecto de “RECUPERACIÓN DEL LEGADO HISTÓRICO DEL RECINTO AMURALLADO DE AURITZ/BURGUETE A TRAVÉS DE LA CONSOLIDACIÓN DE PARTE DE SU PERÍMETRO”, vinculado con las ayudas para el programa de mejora de la competitividad y de dinamización del patrimonio histórico con uso turístico, y solicitud a su vez, de un compromiso por parte del Ayuntamiento de la voluntad de acometer el proyecto, aceptar la ayuda y cumplir los plazos establecidos para su ejecución, procede iniciar el expediente y con el fin de adelantar y que se llegue a tiempo en su ejecución y justificación de obras, aprobar el pliego de condiciones correspondiente para la adjudicación de la redacción de proyecto y dirección de obras, pliego que recoge el procedimiento abierto con tramitación anticipada para poder sacar a licitación del mismo.

Toma la palabra la secretaria que previo informe favorable en cuanto a las condiciones del pliego y su cumplimiento con la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, informa que el presupuesto de 2025 todavía no está aprobado y por tanto el procedimiento es de tramitación anticipada. Así mismo, advierte que en el momento de aprobación de este pliego no se tiene por escrito ningún compromiso del Ministerio, y que por tanto y mientras el Real Decreto no llegue, la adjudicación del contrato derivado de este pliego carece de financiación, considerando una temeridad seguir adelante con este concurso, sobre todo porque se desconocen las características y condiciones de subvención informando finalmente respecto al propio proyecto, que si el Real Decreto no contempla el adelanto de la ayuda, el Ayuntamiento no tiene capacidad para hacer frente al mismo, siendo mi informe desfavorable en tanto en cuanto no se sepa, por un lado, el contenido del Real Decreto y por otro, si el expediente de presupuestos del año 2025 cumple con las reglas de estabilidad presupuestaria.

Responde el alcalde Sr. Irigaray Osés que la Corporación es consciente de que la cantidad supone un desequilibrio en el presupuesto, por ello se ha solicitado sendas reuniones con los departamentos de Administración Local y Cultura y Turismo. Que el primero ya ha

convocado al Ayuntamiento para el día 12 de marzo y que en esa reunión se planteará lo excepcional del caso. Añade que por otro lado las llamadas que ha habido desde el Ministerio de Industria y Turismo garantizan que el proyecto va para adelante, que abonan por adelantado el 100% de la subvención y que en un plazo de dos meses estará el Real Decreto.

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil que está de acuerdo con lo planteado por el Sr. Alcalde y que entiende la postura de la Secretaria-Interventora, pero que desde la intervención se tiene que entender también que es una posibilidad única e irreplicable con múltiples beneficios para el municipio.

El concejal Sr. Martínez se manifiesta en los mismos términos que lo hacen sus compañeros de Corporación.

Toma la palabra de nuevo el concejal Sr. Irigaray Gil que quiere aclarar ciertos aspectos históricos ante el escepticismo mostrado por algún vecino.

Que en el tema de las murallas hay que retrotraerse hacia 1174, fecha probable en el que Auritz, por su situación en el Camino de Santiago recibió el fuero transformándose en el Burgo de Roncesvalles. Como consecuencia de la concesión del fuero la población era considerada buena villa, tenía derecho a autogobierno, se le concedió el derecho a celebrar feria, se dotaba de murallas y se le daba derecho de asiento en las Cortes de Navarra.

El auge del Camino de Santiago hizo que a lo largo del mismo hubiese varios casos más de transformaciones como por ejemplo Lizarra a Estella, Gares o Murugarren a Puente la Reina, Viana, Atrarrabia a Villava, Elo a Monreal, Rocafort a Sangüesa, Donazaharre a San Juan de Pie de Port o Donibane Garazi sin olvidar la capital, Iruña en la Pamplona de los tres burgos.

La villa y sus defensas tuvieron sus altibajos y es en 1637 tras la conquista de Navarra y la nueva situación cercana a la muga la que hace que se proyecte otra vez un recinto alrededor del núcleo urbano. En 1877 encontramos uno de los últimos documentos respecto a estas defensas, se trata de un inventario de los carros de la piedra de las fortificaciones que se hallaban acopiados en las diferentes huertas y espilas, desde casa Etxexuri y Aguió hasta las de Martindorre y Oloriz. A partir de entonces se deja de hablar ya de defensas, murallas o fortificaciones y pasan a ser simples paredes. Así en 1985 se derriba la que había desde la huerta de Birrio a la de Txitsast y se sustituye por un muro de cemento que está pandeando. Añade que en la actualidad quedan vestigios como pueden ser las tapias de varias huertas sin olvidar la casa de Dorrekoa en el centro del casco urbano cuya torre no obedece a un linaje nobiliario sino a un elemento de la defensa colectiva de la villa. Respecto a los trabajos de recuperación histórica y arquitectónica del recinto se remite al acta de la sesión de 24 enero de 2023 que dio origen a este proyecto.

Estudiado y debatido el acuerdo y tras las advertencias aportadas por Secretaría, se acuerda por unanimidad:

1º.-Aprobar el pliego de condiciones administrativas para la contratación de los servicios de redacción y dirección de obra del proyecto de recuperación del legado histórico del recinto

amurallado de Auritz/Burguete a través de la consolidación de parte de su perímetro, cuyo procedimiento de licitación se recoge en el artículo 139 en relación con el artículo 72 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril y con un precio de base de licitación que asciende a 93.400 euros, IVA excluido.

2º.- Compromiso del Ayuntamiento de acometer el proyecto, aceptar la ayuda otorgada por el Ministerio de Turismo e Industria y cumplir los plazos establecidos para su ejecución.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 8:30 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2025eko otsailaren 28ko 08:00etan, Udala bildu zen ez ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: José Irigaray Gil eta Eder Martínez de Miguel. Bilkura buru alkatea, Una Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Andrea Juandeaburre Serna zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- AURIZKO HARRESIKO ESPARRUAREN ONDARE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ETA ZUZENTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ESLEIPEN PROZEDURA ETA BALDINTZA AGIRIAK ONARTZEA

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta azaldu du Turismo eta Industria Ministerioak ahoz jakinarazi duela Errege Dekretu bat onartu dela “AURIZKO HARRESI-BARRUTIKO ONDARE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO” proiekturako laguntzak emateko. Dekretu hori turismo-erabilera duen ondare historikoaren lehiakortasuna hobetzeko eta hura dinamizatzeko programarako laguntzekin lotuta dago. Udalari eskatu diote, baita ere, proiektuari ekiteko, laguntza onartzeko eta proiektua gauzatzeko ezarritako epeak betetzeko borondatearen konpromisoa. Beraz, bidezkoa da espedienteari hasiera ematea eta, obrak aurreratzeko eta justifikatzeko garaiz iristeko, proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko esleipenerako baldintza-agiria onartzea. Baldintza-agiri horrek prozedura irekia jasotzen du, aurretiazko tramitazioarekin, lizitaziora atera ahal izateko.

Idazkariak hartu du hitza, eta, baldintza-agiriaren baldintzei eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea betetzeari dagokienez aldeko txostena egin ondoren, jakinarazi du 2025eko aurrekontua oraindik ez dagoela onartuta, eta, beraz, prozedura aurrez izapidetzekoa dela. Era berean, ohartarazten du, plegu hau onartzerakoan ez dagoela Ministerioaren inolako konpromiso idatzirik, eta beraz, Errege Dekretua iristen ez den bitartean, plegu honetatik eratorritako kontratuaren esleipenak ez duela finantzaketarik, eta ausarkeriatzat jotzen du lehiaketa honekin aurrera jarraitzea, batez ere dirulaguntzaren ezaugarriak eta baldintzak ezezagunak direlako. Era berean, proiektuari berari buruz jakinarazi du, Errege Dekretuak ez badu jasotzen laguntza aurreratzeko, Udalak ez duela gaitasunik horri aurre egiteko, eta idazkariaren txostena kontrakoa dela, alde batetik, Errege

Dekretuaren edukia zein den jakin arte, eta, bestetik, 2025eko aurrekontu-espedituentzako aurrekontu-egonkortasuneko arauak betetzen dituen ala ez jakin arte.

Irigaray Osés alkate jaunak erantzun dio Udalbatza jakitun dela kopuruak desoreka dakarrela aurrekontuan, eta horregatik eskatu direla bi bilera Toki Administrazio eta Kultura eta Turismo departamentuekin. Lehenengoak dagoeneko deitu duela Udala martxoaren 12rako eta bilera horretan planteatuko dela kasuaren salbuespen izaera. Gaineratu du, bestalde, Industria eta Turismo Ministeriotik egindako deiek bermatzen dutela proiektua aurrera doala, diru-laguntzaren %100 aldeztetik ordaintzen dutela eta bi hilabeteko epean Errege Dekretua argitaratuko dela.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza. Bat dator alkateak planteatutakoarekin, eta ulertzen du idazkari-kontuhartzailearen jarrera. Hala ere, kontu-hartzaileak aukera bakarra eta errepikaezina dela ulertu behar du, eta onura ugari dituela udalerriarentzat.

Martinez zinegotziak bere udalkideek dioten iritzi bera dela azaldu du.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza berriro, eta zenbait alderdi historiko argitu nahi ditu herritarren batek erakutsitako eszeptizismoaren aurrean.

Harresiei dagokionez, 1174. urtera jo behar dela atzera, litekeena baita data horretan Auritzek, Done Jakue bidean zuen kokapenagatik, forua jaso eta Orreagako Burgua bihurtzea. Forua ematearen ondorioz, herria hiribildu ontzat hartzen zen, autogobernurako eskubidea zuen, feria egiteko eskubidea eman zitzaion, harresiak egin ziren eta Nafarroako Gorteetan esertzeko eskubidea eman zitzaion.

Done Jakue bideak izan zuen gorakadaren ondorioz, hainbat eraldaketa gehiago izan ziren, hala nola, Lizarratik Estellara, Garesetik edo Murugarrenetik Puente la Reina, Viana, Atarrabiatik Villavara, Elotik Monrealera, Rocafortetik Zangozara, Donazaharretik Donibane Garazira, hiriburua ahaztu gabe, Iruña hiru burguen Pamplonan.

Hiribilduak eta bere defentsek gorabeherak izan zituzten, eta 1637an, Nafarroa konkistatu eta mugatik gertuko egoera berriaren ondoren, berriz ere hirigunearen inguruan barruti bat proiektatzea eragin zuen. Defentsa hauei buruzko azken agirietako bat 1877koa da, baratze eta espila ezberdinetan pilatuta zeuden gotorlekuetako harrizko gurdien inbentarioa da, Etxexuri eta Aguiorenetik hasi eta Martindorre eta Oloritzeneraino Harrezkero, ez da defentsez, harresiez edo gotorlekuez hitz egiten, eta horma huts bihurtzen dira Hala, 1985ean, Birrioko baratzetik Txitsastekora zegoen pareta eraitsi zen, eta, haren ordez, zementuzko horma bat jarri zen, egun makurtzen ari dena. Gehitu du gaur egun aztarna batzuk geratzen direla, hala nola, zenbait baratzetako hormak, Dorreako etxea ahaztu gabe, hirigunearen erdian, zeinaren dorrea ez baitagokio noblezia-leinu bati, baizik eta hiribilduaren defentsa kolektiboko elementu bati. Esparruaren berreskuratze historiko eta arkitektonikoari dagokionez, proiektu hau abiarazi zuen 2023ko urtarrilaren 24ko bilkurako aktara jo du.

Erabakia aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta idazkariak egindako ohartarazpenen ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Administrazio baldintzen agiria onestea, Aurizko harresi-barrutiaren ondare historikoa bere perimetroaren zati bat sendotuz berreskuratzeko proiektua idatzi eta obra zuzentzeko zerbitzuak kontratatzeko. Lizitazioaren prozedura apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 139. artikuluan dago jasota, 72. artikularekin lotuta, eta hasierako prezioa 93.400 euro da, BEZa sartu gabe.
- 2.- Udalaren konpromisoa, proiektuari ekiteko, Turismo eta Industria Ministerioak emandako laguntza onartzeko eta proiektua gauzatzeko ezarritako epeak betetzeko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 8:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

